


EDITORIALA



Irudia ~Michael Webb-en Karrera Amaierako Proiektua. 1957

Azken Karrera Amaierako Proiektuak (KAP) aurkezten eta defendatzen ari dira unibertsitateetan hilabeteotan. Hemendik aurrera, Boloniako Plan delakoaren ezartzearekin, dezente aldatuko delako arkitekturako ikasketei amaiera ematen dien erremate-proiektua. Izenez eta izanez, EHUren Arkitektura Goi Eskola Teknikoan –euskarazko arkitektura-irakaskuntza eskaintzen duen munduko eskola bakarra–, bederen, Gradu Amaierako Lana (GrAL) egingo da aurrerantzean Arkitekturaren Oinarrietako Gradua bukatzerakoan, eta, arkitektura-obrak sinatu nahi badira, baita Master Amaierako Lana (MAL) ere, eraikitzeko gaitasuna emango duen ondorengo masterra amaitzerakoan.

GrAL delakoa betiko KAPa baino mugatuagoa izango da, garapen tekniko txikiagoa edukiko duelako, oinarritzko proiektu baten mailatik gertu. MAL delakoa (zerbaiten iragarpena izango da akronimoa?), ordea, arkitektura-diseinutik gutxi edukiko du kasu gehienetan, proiektu-mailako erabaki gehienak GrALean aurretik hartuak izango direlako. Horregatik da hain interesgarria eta egokia oraintxe bertan egitea azken urteotako Karrera Amaierako Proiektuen balantzea: aldaketa badatorrelako.

Zenbait iritzi-artikulu laburrekin batera, azken urteotako KAPen lagin zabal bat bildu dugu Aldiriren zenbaki honetan. Proiektuen aukeraketa hainbat eskolako arkitektura-irakasle askoren artean zabaldutako deialdi ireki baten emaitza da. Emaitza mugatua, halaberharrez, baina aski esanguratsua: diren guztiak ez daude, baina dauden guztiak badira.

Arkitektura-estiloen eta uneko moden erakusleihu aparta izan dira Karrera Amaierako Proiektuak. Klasizista, postmoderno, high-tech, minimal, blob-itxurako, etxola-moduko, berde-kutsuko... la-ia unean uneko arkitektura-manifestuak. Izan ere, bere bizitza osoan arkitekto(-gai) batek inoiz egingo duen proiekturik arkitektonikoena –askeena– izango da Karrera Amaierakoa, errealitateak nahitaez inposatzen dituen hainbat osagai mugatzaile (aurrekontua, bezeroa, udal-araudia) oraindik ez direlako gehiegi hartzen kontuan, sormenaren izenean.

Hemendik aurrera, batek daki. Aldiriren zenbaki bikoitz honetan, azken KAPak.